

FRANTXOA MAITIA

FRANTZIAKO ALDERDI SOZIALISTAKO BOZEMAILE IPARRALDEN ETA AKITANIA ESQUALDEKO PRESIDENTEORDE

“Biziki harrigarria da Frantzian Jon Anzari gertatua, kasik urtebete ematea gizon bat nor den ezagutzeko”

Frantxoa Maitiak betidanik erakutsi du euskal departamenduaren aldeko jarrera. Eskualde hauteskundearen harira, Batera plataformak Ipar Euskal Herrirako erakunde berezi bati buruz antolatutako herri kontsulta sostengatu zuen.

J.OSTOLAZA

BAIONA. Frantxoa Maitia baikor eta pozarren dago iragan igandean Frantziako eskualde hauteskundeetan bere alderdiak lortutako emaitzekin. Alderdi Sozialista frantsesaren bozemaile eta buruzagi nagusietako da Maitia azken hamarkadan eta, horretaz gain, Akitania erregio edo eskualdeko presidenteorde eta Pirineo Atlantiarretako Departamenduko (Iparalde hiru lurraldeak eta Bearn hartzen ditu bere baitan) kontseilari nagusi. Baionan hartu gaitu elkarrizketarako, Kontseilu Nagusiko egoitzan, zenbait politikariren aldetik hauteskundeetan izandako emaitzengatik zorion agurrak hartu eta eskertu ondoren.

Nola azaltzen dituzu Alderdi Sozialistak joan den igandean hauteskontzietan lortutako emaitzak?

Orokorrean, emaitzak onak dira eta bi arrazoi daude hori ulertzeko. Lehenbizi, eskualdeetako presidentek lan ona egin dutelako. Oso ondo jardun dute euren zereginetan eta egungo karguetan jarraitzea erabaki dute herritarrek. Botoemaileek ontzat jo dute Akitaniako presidente Alain Rousset-en lana eta agintaldia eta bide berezitik jarraituko dugu. Rousseten izaera berezi xamarra da, toki guztietara iristen da eta jendeak ondo baloratzen du, hala nola industria esparruan, lanbide heziketaren arloan, nekazaritza munduan... Aitzitik, eskubiko alderdiko hautagaia, Xavier Darcos, oso gutxi azaldu da azken urteetan, lauzpabost alditan soilik izan da Akitaniako Kontseiluko plenoetan eta, azaltzen zenean, ordubete besterik ez zuen ematen bilkuretan.

Badirudi Frantziako Gobernua zigortu dutela hautesleek eta horrek mesede egin diola alderdi sozialistari.

Zalantzarik gabe, gure gizarteak Nicolas Sarkozyren gobernuaren aurkako botoa eman du, batik batik injustizia handiak ikusten dituelako, adibidez, Frantziako politika fiskalean. Izan ere, abantaila fiskalak pribilegiatuenez izan dira eta horrek mila milioi eurotako zuloa dakarkio Frantziako Ogasun eta ekonomiari. Horretaz gainera, hemen ere krisi ekonomikoak gogor astindu du eta jende asko langabeziaren mehatxupean bizi da. Txiroek gero eta zailtasun gehiago ditu bizitzari aurre egiteko eta, bidegabekeria horren aurrean, normala zen botoemaileek bizkarra ematea eskubiari.

2004ko eskualdeko hauteskundeetan ere emaitza bikainak lortu zenituzten, baina gero 2007ko presidentzialetan Sarkozyren UMPk aise irabazi zuen. Beldur zarete bi



Frantxoa Maitia, Baionako karrika batetik oinez, iragan asteazkenean. ARGAZKIAK: JAVI COLMENERO

urte barruko bozetan berdina gertatuko ote den?

Gure helburua ez da mugatzen udal eta eskualdeetako erakundeetan gobernatzera. 2008an udal hauteskundeetan emaitza onak erdietsi genituen. Frantzian hiru hiri handietan bi sozialisten esku daude, departamenduen %64 ere bai, eta gauza bera esan daiteke eskualdeetat. Mugimendu hau bultzatu eta sendotu nahi dugu 2012ko hauteskunderi begira, Frantziako legebiltzarra eta presidentea baitaude jokoan. Alderdi barruan primariak izango ditugu hautagai bat aukeratzeko [Segolene Royal eta Martine Aubry dira aukera gehien dituztenak eta eurak lehiatuko dira sozialisten hautagai izateko] eta lehen itzulian emaitza onak lortzea izango dugu helburu. Iragan igandeko emaitzei erreparatu gero, 2012an irabazteko aukera handiak ditugu.

Komunistak eta berdeekin batera?

Hori da gure helburua, elkarrekin joatea, baina hori bakarrik lortu ahal izango dugu hauteskunde programa bat adosten badugu denon artean.

Ipar Euskal Herrian, eskualdeko bozak ez ezik, beste bozketa bat ere egin zen, Baterak euskal erakunde propio baten alde egin zuena ale-

Ezker abertzalearen adierazpenari, ETAK zer erantzun dio? Erailketa bat. ETAK armak utzi behar ditu

“Ez dut uste frantses poliziaren hilketak Batasunaren legez kanporatzea ekarriko duenik Frantzian”

“Gauza jakina da Ipar Euskal Herriko jendeak egitura berezi bat nahi duela, baina Estatuak ukatzen digu”

gia. Nola baloratzen duzu kontsulta honetan izandako emaitzak?

Beldur pixka bat banuen. Batera mugimenduak izenpetze anitz bildu zituen: 35.000, biziki garbiki identifikatuak, lana seriozki eginik. Hor zama ederra bazen, jadanik. Baina ez da gauza bera lagun batek proposatzen dizunean agiri baten izenpetzea edota igande batez jaitzea bozkatzeko. Jendea mobilizatu da, hala ere. Emaitza oso polita eskuratu du Batera-k. Gauza jakina da baduela bi mende Ipar Euskal Herriko jendeak egitura berezi bat nahi duela. Estatuak eta hautetsi handiek ukatzen digute. Baina hemen, azpiegitura ttipi bat badugu. “pays” egitura, eta kontratuak eginez estatuarekin eta erregioarekin, politika bat eraman dezake-

gu. Hori salbatu behar dugu. Nicolas Sarkozyren erreformaren asmoa da egitura horiek desagerraraztea. Desagertuz gero, Iparraldearentzat bukatua litzateke kontratatzeke egitura minimo hori. Nik nahiago nuke urrunago joango bagina, eta estatutik, erregiotik eta departamendutik eskumen batzuk bateratzen ahal balira, Iparraldeko egitura batean.

Erakunde hori noizbait onartuko dute?

Hori onar dezaten, lehenik behar ditugu defendatzaileak, hemen. Argi da hemengo diputatuek ez dutela defendatzen. Hemengoek ez badute defendatzen, nola nahi duzu Frantzia osoan defendatzaileak atzematea? Beharbada heldu den hauteskundeek aldaketak ekarriko dituzte.

Nola sentitu duzu Euskal Herriko Laborantza Ganberaren auzia?

Hor ere politika zentralista bat sentitu dut. Prefeta hain gogorki aritzea Laborantza Ganberaren kontra, harrigarria da, baina zentralismoaren eskua ikusi behar da. Guk deszentralismoa nahi dugu. Azpimarratu behar da Eskualde Kontseiluak aitortu duela Laborantza Ganberak gauza onak ekarri dituela, eta orain departamenduak ere laguntzen du.

Duela zenbait egun, ETAk frantses polizia bat hil zuen Parisetik hurbil. Zer irakurketa egiten duzu?

Izan da bake prozesu bat. Memento hartan, konfiantza sortu zen, baina ETAk ez zuen bere hitza errespetatu: arma lapurreta egin zituen. Beraz, ETA ahul zen, bere armamenduetan, eta treguaz baliatu zen armak lapurtzeko. Zerk egiten dit min handiena? Su-eten memento hartan lapurtu arma batekin izan zela Parisko erailketa. Beraz, bake prozesu bat berriz hasi aitzin, denbora pasatuko da, konfiantza ez baita hor.

Zein izan daiteke Frantziaren erantzuna? Batasunaren legez kanporatzea gerta liteke?

Ez dut uste. Zer diozu ezker abertzalearen 'Zutik Euskal Herria' adierazpenaz, non erraten baitu indarkeriarik gabeko prozesu bat behar dela?

Arrazoia daukate. Bada aski, ez da bide horretatik segitzen ahal. Noiz arte? Ezker abertzalearen adierazpen hori biziki garrantzitsua da, eta erran nuen: "ageriko zer erantzun emanen duen ETAk". Eta erantzuna ekarri du: erailketa bat. ETAk armak utzi behar ditu.

Hori laster gertatuko da?

Kontzientzia gero eta azkarrago doa, armen uztea biziki beharrezkoa dela. Ezkerreko abertzaleek nahiago lukete aterabideak demokratikoki aurki daitezkeen, baina ETA da arazoa. ETAk desagertu behar du. Ez dut erraten erraza dela, baina lehenbailehen urratsak egin behar ditu.

Zer diozu Jon Anzaren aferaz?

Biziki harrigarria da. Holako bat gerta dadin Frantzian? Gauza harrigarria. Kasik urte bat emana izan dadin gizon bat ezagutzeko, nor den, non zen... Alta, justiziak errana zuen inkesta egiten zuela. Eta den maneran aurkitu izana, ezin onetsizkoa da.

Zer gertatu zitzaion hamaika egun horietan?

Nork daki? Dena den, hamaika egun horietan zer gertatu zen, beharbada jakinen da. Baina hil ondoren, hainbeste hilabetez ez jakitea hor zela! Ez zen gauza bera izan Lille hirian izan balitz, baina Baionatik Tolosara joanik, eta treneko billetea sakelara zuela jakinik, aski aise asma zezaketen nor zen.



El socialista Frantxoa Maitia, en un momento de la entrevista.

“El objetivo más importante es crear una gran ciudad entre Donostia y Baiona”

J.OSTOLAZA

BAIONA. Desde su posición como vicepresidente del Consejo Regional de Aquitania, y como consejero general del Departamento de Pirineos Atlánticos –que abarca Iparralde y la zona de Bearn–, el socialista Frantxoa Maitia detalla los planes de su partido –ganador de las elecciones regionales del Estado francés– de cara al futuro.

En Aquitania, ¿cuáles serán sus prioridades?

Seguiremos por el mismo camino, sobre todo en la política económica. Pensamos que los futuros empleos de Aquitania serán empleos de innovación. Esa es nuestra prioridad. Eso supone que hay que hacer investigaciones, crear empleos nuevos y renovar las empresas. En los años 90, cuando Jacques Valade –derecha– era presidente, dedicábamos el 3% de nuestro presupuesto a la innovación. Ahora, doce años más tarde, dedicamos el 9%: cada año, ponemos 116 millones de euros para renovar la industria. Yo me ocupaba del polo de madera; es un sector económico muy importante en Aquitania; emplea a 104.000 empleados. Tenemos un cluster, y hemos reunido 135 empresas, para ofrecer formación, innovación...

¿Tienen proyectos similares para otros sectores, como es el caso de la agricultura?

Sí. Sostenemos la agricultura que respeta el medio ambiente. Hemos traído una parte de la agricultura a las producciones biológicas, y queremos llegar al 20% de la producción. Sostenemos a cada agricultor, pero tenemos ayudas para proyectos colectivos también: promoción de la producción, turismo, etc. Seguiremos con la misma política territorial. Iparralde es un territorio particular. No hay otro sitio donde el Estado, el departamento y la región estén unidos para una gran política. Con esa política, queremos



Maitia apuesta por promover la innovación.

SUS FRASES

“Con el Gobierno de Patxi López trabajamos en los estatutos de la eurorregión”

“Empezaremos a colaborar haciendo trabajar a nuestras universidades juntas”

“Con el tramo del tren Baiona-Donostia, las fronteras desaparecerán poco a poco”

renovar la línea del tren Baiona-Garazi.

¿Con qué frecuencia circularán los trenes?

Ahora hay seis o siete trenes cada día, y creemos que podemos poner más entre Kanbo y Baiona. Nuestro objetivo no se limita a esa línea. Entre Baiona y Hendaia también hay obras importantes. Mejoraremos la oferta, porque queremos que la gente se habitúe a coger el tren, dejando los coches en casa.

¿Por eso apoyan la nueva línea del tren de alta velocidad? ¿La línea actual no es suficiente para el desarrollo de los trenes regionales y de los trenes de alta velocidad?

La gente no tiene aún la conciencia de que una ciudad europea está naciendo entre Baiona y Donostia. Y hay que organizar el transporte. Por eso estamos a favor de nuevas líneas, porque tenemos que poner

una parte de los camiones en los ferrocarriles. Sabemos que el tráfico aumentará. La nueva línea de alta velocidad debe integrarse bien en el medio ambiente. Tendremos en cuenta todas las personas implicadas para ofrecerles buenas soluciones. La gente se ha preocupado, pero hay razones muy importantes para ir adelante. La primera es que el tren llegará desde España, y debemos integrar el País Vasco en este proyecto europeo.

Hace veinte años que se habla del tren Baiona-Donostia, pero hasta ahora no se ha realizado. ¿Cuándo será una realidad?

La línea del tren de alta velocidad no se hará mañana, sino que dentro de diez años. En este plazo, necesitamos poner más trenes en el transporte de mercancías y de pasajeros. Las cosas no avanzan tan rápido como queremos. No hay que olvidar el objetivo más importante: crear una gran ciudad entre Donostia y Baiona, y vamos a estructurar el País Vasco en torno a esta metrópolis europea. Las fronteras desaparecerán poco a poco.

Parece que usted defiende un discurso abertzale.

No. Pero es la realidad. Estamos en Europa, y el futuro de Europa se hará entorno a grandes metrópolis, sin olvidar las zonas rurales. Alain Rousset trabaja en las relaciones transfronterizas, y sabe que nuestra metrópolis está en el centro de la región Aquitania-Euskadi.

¿Qué relación tienen con el Gobierno de Patxi López?

Trabajamos en la preparación de los estatutos de la eurorregión Aquitania-Euskadi. Nuestro objetivo es lograr el estatuto GECT (Grupo europeo de cooperación territorial) por parte de la UE y de los estados francés y español. Pero empezaremos a trabajar antes, sobre todo en la economía, y haciendo trabajar nuestras universidades juntas.